

HEZKUNTZA ITUNA. SINTESIA

Euskal Hezkuntzari zorrotz begiratzeko unea da. Egungo erronkei erantzuteko beharrezkoak ditu: berrikuntza-kulturaz jabetzea; hezkuntza-prozesuari aplikatu dakizkiokeen ekarpen zientifikoak aintzat hartzea; ikusmiran izatea ikaskuntzaren subjektu aktibo diren ikasle ahaldunduak, hala nola ikasleak gidatzen eta laguntzen dituzten irakasleak eta familiak; hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eskola-antolaketa eraikitzea, euskal ingurune soziokultural eta instituzionalarekin elkarrekintzan; gobernantza-eredu berria ezartzea, erantzunkidea, deszentralizatua eta udal-erri-, lurralde- eta autonomia-mailan egituratua.

Zergatik lege bat?

XXI. mendeko Euskal Hezkuntzaren legea behar dugu, gure herriaren bilakaera historikoari eta euskal gizarteak hezkuntzarako duen aukera-aberastasunari justizia egingo diona, beti ere, balio publikoen markoan zerbitzua eskaintzen dutenen eskubideak eta betebeharrak birpentsatu eta birformulatuz.

Bestealde, legeak eskaintze du beharrezkoa den segurtasun juridikoa hezkuntza komunitatearen eratze-prozesuaren garai berri honi aurre egiteko. Hargatik aitortzen diogu zentzu estrategikoa.

Bizikidetzaren eta aniztasuna

Europar eskola goiz uzten dutenen tasa txikienetako bat du Euskadik (% 4,8), eta goimailako hezkuntza duten ikasleen tasa handienetako bat (% 59,6). Era berean, eskolatze goiztiarreko tasarik altuena duen autonomia-erkidegoetako bat da: haurren % 92,3 bi urteko geletan eskolatuta daude, eta % 99 hiru urteko geletan. Halere, bizikidetzaren askoz gehiago da, zeharkakoa eta eskolak ezin gainditu dezakeena. Erronka honek ikastetxeen eta administrazioen elkarlana du ezinbestekoa.

Egungo euskal gizartea justizia eta kohesio sozialarekiko sentibera da, euskara eta euskal kultura mundu globalean birkokatze beharra onartzen duena, berdintasuna eta elkarbizitzarako eredu partekatua bilatzen duena, eta prestakuntza-eskaera berriek planteatzen dituzten hezkuntza-erronkez jabetua dena.

Ikuspegi honetatik abiatuta, *Euskal Hezkuntza Zerbitzua* osatuko dute, euskal gizartearen baloreak oinarri hartuta, legeak ezarritako konpromisoak betetzen dituzten ikastetxeak. *Euskal Hezkuntza Zerbitzuak* baliabide publikoak sostengatzen diren ikastetxeak hartuko ditu, dena dela bere izaera juridikoa, beti ere familien eskola-hautaketaren eskubidea errespetuan eta gizarte-bazterketa gainditzeko ahaleaginean. Hezkuntzaren zerbitzu publikoa ematen duten eragileen artean eskola publikoak funtsezko rola du.

Plangintza eta hezkuntza sistemarako sarbidea

Hezkuntza Sailak aldian-aldian zehaztuko du eskola-plazaren eskaintza, kontutan hartuta ikastetxe guztien eskaintza. Matrikulazioaren eta eskolaratze prozedura bateratuak tresna egokiak dira, beti ere familien hauta-eskubidearen errespetuan. Doakotasun erreala bermatuko da eskolaratze-kuotak desagerraraziz eta ikasleen oinarrizko hezkuntza

beharrak %100ean finantzatuko dira, irizpide ekitatiboen arabera, sozialki baldintza konplexuetan daudenak gehiago lagunduz.

Aldaketa eta hezkuntza-hobekuntza: ekitatea eta bikaintasuna

Hezkuntza-eraldaketaren bi alderdi dira. Gizarte-kohesioa aukera bat da, legeak euskal eskola inklusibo baten alde egingo duen apustuarekin bat etorriz. Eskola horrek planak, programak eta protokoloak garatuko ditu ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko, hezkidetzarako eta genero-indarkeriaren prebentziorako, ikasle ijitoak eskolatzeko, adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleen jarduerarako, ikasleen eskubideak eta betebeharrak betetzeko, eskola-jazarpenaren aurrean eta ziberbullyingaren aurrean jarduteko, edo genero-portaera ez-normatiboa duten ikasleei laguntzeko.

Bikaintasunaren aldeko apustu irmoa da Euskal hezkuntza Zerbitzuaren beste ezaugarri bat, aukeren optimizazioa sustatzen duten formulekin. Ikastetxeek partekatutako proiektuak eraiki eta adimen kolektiboko espazioen antolamendua bultzatu ahal izango dute, bikaintasun-eremuak aurkitzeko helburuarekin.

Ikastetxeetako zuzendaritzen ahalduntzea eta lidergo pedagogikoa

Ikastetxe orok norabide sendoa behar du, eskola-komunitatea estrategia irmoarekin eta erabakiak hartzeko autonomiarekin gidatuko duena, eta lortu beharreko emaitzen erantzukizuna bere gain hartuko duena. Bi dira gakoak: Autonomia eta gaitasunak. Zuzendaritza-eredu propio baten aldeko apustuak berekin dakar kudeaketan eta lidergoan prestakuntza integrala eta espezializatua izatea, bai eta eskola-zuzendaritzei laguntzeko eredu bat ere, zeregin burokratikoak murriztuz, administrazioko langileak indartuz.

Bestalde, horrek eskatzen du (i) errendimendu handiko prestakuntza espezializatua; (ii) baliabide nahikoak, maila pertsonalean zein kolektiboan, profil horren zuzendaritza-erantzukizunekin bat etorriz; (iii) konpentsazio ekonomikoa eta gizarte-aitorpena, erantzukizun eta eskakizun horiekin bat etorriz.

Programa-kontratua

Tresna juridikoa, ekonomikoa, finantzarioa da programa-kontratua. Haren eskutik, Hezkuntza Sailak ikastetxearekin (edo ikastetxe-taldearekin) adostuko ditu aldiran bultzatu beharreko misioa eta ikuspegia, plan estrategikoan eta programa-kontratuan bertan eragina duten balioak; eta ebaluazio-adierazleak eta –metodologia.

Tokiko Hezkuntza Kontseiluak

Hezkuntza erantzukizun partekatua denez, konpromisoa eta giro kooperatiboa elikatzeko organoa da, ikasleen onura dakarrena, zenbait baliabide komunitario artikulatzen diren heinean. Hezkuntza komunitate guztiaren partaidetza bilatuko du, helburu hauek tarteko, bestak beste: (i) hezkuntza-premiak identifikatzea, eskaintza banatzea eta ikasleak eskolatzeko irizpideak zehaztea, hiri-plangintzatik eratorritakoak barne; (ii) hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen eskolatzeko egokia eta orekatua bermatzen laguntzeko jarduerak eta behar diren neurriak hartzea, ikasleak arrazoi sozioekonomikoengatik edo beste izaera bategatik bereiztea saihesteko.

Euskal Eskola Publikoaren Kontseilua

Partaidetzarako erakunde gisa eratuko da, gaitasun eta autonomia nahikoa izango duena ikastetxe publikoen beharrak eta interesak identifikatu eta defendatzeko, euren lana eta lorpenak ikusarazteko, ingurunean integratzeko, ikastetxeen arteko lankidetzak-lana bultzatzeko eta praktika onak hedatzeko helburuz sareak sortu eta abian jartzeko.

Euskal Hezkuntza Sistemaren hizkuntza-eredu eleaniztuna

Euskal Hezkuntza euskara ardatz duen sistema eleaniztuna da, eta bi hizkuntza ofizial eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batekin egituratzen da, herritarren gizarte-kohesioa eta komunikazio-gaitasuna bi hizkuntza ofizialetan bermatzeko funtsezkoa baita.

Hezkuntza-administrazioak bermatuko ditu ikasleen hizkuntza-eskubideak. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean zein bestean egon daitezkeen gabeziak konpentsatzeko neurri eraginkorrak bultzatuko ditu.

Curriculumek bermatu behar dute ikasleek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabiltzaile aurreratu gisa erabat menderatzen dituztela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, Europako erreferentzia-marko bateratuaren adierazle bertsuetan. Eta aurreikusi behar dute gutxienez atzerriko hizkuntza baten ezagutza nahikoa ikas-etapa beraren amaieran.

Euskara lehenetsiko da jarduera-harremanetan zein profesioaletan baita ikasleen eta irakasleen arteko harreman formal eta ez-formaletan ere.

Hauexek dira gakoak.

- **Hezkuntza sistema bakarra eta askotarikoa**, gogoan dituen ikasle profil soziolinguistiko eta sozioekonomikoa.
- **Ikasleen hizkuntza-gaitasunaren irudikapena**. Pertsona elebiduna ez da bi eleren batura duena. Elebidunaren gaitasuna, gaitasun elebiduna da. Horrek eskatzen du hizkuntzak modu bateratuan planifikatu eta lantzea eta euren arteko transferentziak egiten ikastea.
- **Irakasle bikainak** behar ditu plan bikainak. Hezkuntza sailak neurriak eta pedagogia soziala bultzatuko ditu irakasletza-lana ondu eta aitortzeko.
- **Ikerketa** aplikatua garrantzitsua da, unibertsitateekin elkarlanean aztertuko eta abiatuko dena.
- **Ikasmaterial** egokiak ziurtatzea eta eraldaketa-tresna hauen ebaluazio ororen irizpideak ikas-metodologiekin bat etorriaz.

Eskola ekosistema bat da eta, aldi berean, beste zabalago baten parte da, gure kasuan komunitate anitz baten barruan. Testuinguru soziolinguistiko batzuetan eskola da euskara ikasi era erabiltzeko eremu bakarra nahiz eta berauetan ere lehen hizkuntza euskara dutenak eskolatzen diren. Badaude, baita, zonalde oso euskaldunak izanda, ia euskaraz ez dakiten ikasleak hartzen dituztenak. Bi egoera hauen artean kokatzen dira gainerakoak y denak jaso eta landu behar ditu Euskal Hezkuntza Sistemak ekitate eta bikaintasuna dituela ortzi-muga

Euskararen Ikaskuntzarako Institutua

Erakunde honek Euskararen Aholku Batzordeak onetsitako zenbait lan ildoak izango ditu kontuan, ondoko hauetan: irakasleen gaikuntza hizkuntzan eta metodologian, euskal kultura transmititzeko gaikuntza barne; hizkuntza-ziurtagirien beharrak aztertu, proposatu eta ezartzean; euskal curriculumaren lanketa eta eskola materialaren ekoizpenaren antolakuntzan; eta eskola eremuan hizkuntzaren erabilerarako dinamizatzeko lanetan.

Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa

Zentro hau, kudeaketa, antolakuntza, metodologiak eta tresnak garatzeko eredu aurreratuen ezagutza transferitzeaz arduratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztien premia eta errealitateetara egokituta, organo honen helburuak, hauexek: hezkuntza-berrikuntzaren arloan ikertzea; ingurune presentzial eta digital berrietan hobekuntza garatzen laguntzea; ikastetxeen antolaketarako eta kudeaketaren eraginkortasuna sustatzea; eta eskola inklusiboaren garapena eragitea, ikasle guztiek parte hartuz eta ikasteko prozesuetan hobekuntzak eraginez.

Lankidetzako prestakuntza berri baterantz

Irakasleen eginkizun eraldatzaile eta eraginkorra irakasle bakoitzaren jardunetik, ikastetxeko lanetik (praktika desberdinei buruzko azterketa, eztabaida eta adostasuna; prozesu berrien birformulazioa) eta eskolen arteko lankidetzatik (kanpoko adituen laguntza barne) abiatuko da. Lan erraza ez bada ere, irakasle gehienek aldarrikatzen dute, XXI. mendera egokitzeko beharrak sakonak baitira, bai curriculumari dagokionez, bai lidergo berriei dagokienez.

Lan-taldeen egonkortasuna eta sendotzea, ikasle etorkinen eskola-murgiltze programak, aniztasunaren inklusioa eta tratamendua, hezkidetzak eta etengabeko eguneratze pedagogikoa ezinbesteko tresnak dira hezkuntza-lana eraginkortasunez garatzeko. Ondorioz, ezinbestekoa da erronka hori bultzatzea, eskola antolatzeko egitura eta modu berriak sortuz.

Bestalde, irakasleek, beren ezagutzak eta trebetasunak etengabe egokitzeaz arduratzen direnek, beren ezagutzak eguneratzeko beharrezko lanbide-sustapenerako eta etengabeko prestakuntzarako eskubidea dute, irakaskuntza-metodologia berrien eta iraultza teknologikoaren eskakizunen erronken aurrean, betiere ikuspegi humanista, soziala eta bidezkoa oinarri hartuta.